


GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

44. zenbakia

94ko martxoak 25



Udaberria loraldian


Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak
gogor diharduela euskal gizarte
eta enpresagintzaren alde. Oso
Kutxa geure-geurea dela. Euskal
Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen
al duzu gure profesionaltasun
-eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura
gehiago. Familientzat, interes han-
diagoak kontu korrontean eta ohiz-
ko libretan. Beste kutxetan baino
gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da, profesio-
naltasun garbiko bidean.




- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



Barandiaran
ZERAMIKAK

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN



*i*txura baino
gehiago...

ANTZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxa: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

44. zenbakia. 94.eko martxoak 25. Debaldeko alea. Tirada: 3.500 ale. 3.000 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak"
Kultur Elkarte.

Dorre-etxea, 1. (Correos-gainean).

Tfna: 889612. Faxe: 161463.

124 posta kutxa, Ordizia.

Erredakzioa: Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea: Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea: Dionisio Amundarain, Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agi-

re, Nekane Altuna, Jesus M. Munduate, Amaia Balerdi eta Estitxu Imaz.

Kronista eta kolaboratzaileak: Marijoxe Madariaga, Argider Mujika, Joxe Begiristain, Rufino Iraola, Gurutze Aldabe, Estitxu Imaz, Aitor Calvillo, Nekane Altuna, Gabino Murua, Joseba Telleria, Arantxa Arza, Pilare Mujika, Ion Aldanondo, Xabier Glez, Ezama, Antonio Berasategi, Alazne Iturrioz, Xabier Mendiguren eta Arantxa Aierbe.

Fotokonposaketa eta maketazioa:



GOIERRITARRA. Inprimaketa: ANTZA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



23. rugbya: Santos Regil: "Ez dugu sinisten gehiagorako gauza garenik"

GOIERRITARRA etxean jaso nahi dut

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA TLF.

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jasodu

GOIERRITARRAK
GOIERRIKO
UDALEN
LAGUNTZA DU

NON ZER

4. eskutitzak

5. agenda: *intereseko telefonoak, gastronomia, bota bertsoa, Ordiziako azken feria, Legorreta eta Ordiziako kultur egitarauak, debaldeko iragarkiak, egutegiak...*

8. iritzia txandaka: *Iztueta behintzat bai, Zaldibiakoa*

9. besteek esana, inkesta: *Intsumisoak epaitzea zer iruditzen zaizu?*

10. Goierriko berri: *Turismo bideak*

12. J. M. Azurmendi: *"Euskal baserri-giroa ezin da gaztelaraz eman"*

13. Joseba Jaka, *editore/saltzaile zegamarra (eta II)*

14. hemen eta orain: *Telefono berdea; arrastoan: Jokin Apalategi*

15. herriz herri: *Segura, Idiazabal, Lazkao, Ordizia, Itsasondo, Zaldibia, Beasain, Ezkio-Itsaso, Ormaiztegi, Gabiria, Ataun eta Legorreta*

Neure begiz ikusi dut!

Otsailaren 9a, asteazkena, 18,00ak jota, Lazkaoko Zelaia. Garai horretan eta hortixe pasatzea suertatu zitzaidan eta neure begiz ikusi nuen zuhaitz bat, ezkia, motozerraz ebaki eta botatzen. Hiru gizon Udalak eskatutako lana betetzen. Kosta zitzaien, bai. Motozerra kamutsa zegoela zioten borrarroek eta zuhaitza berriz indarrean, ama-lurrari ondo itsatsita, sano- sano ikusten nuen nik... kea, gasolina usaina eta zarata zerion zerra harek eta saiatzearen saiatzeaz bere helburua bete zuen. Nola ez ba? Jakin ezazue Udalaren proiektuan zuhaitza zegoen pare horretan zer joango den... Bulegoetan diseinatutako proiektuak burutu behar ote ditugu beti? Ez ote dago modurik naturako hainbat gauza nola dauden ikusi eta haiek errespetatuz lana egiterik? Hainbeste-ko enbarazoa egiten bazuen zuhaitz harek, ez al zegoen zuztar eta guzti atera eta beste nonbait aldatzerik? Banaka-banaka denak bota behar al dituzue...? Ze nik bakararra botatzen ikusi nuen, baina hamabi bota dituzte, ezkiak eta platanondoak. Eta kontraesanaren kontraesanez, "Zuhaitz eguna" antolatatu eta futbol zelaia inguruan zuhaitzak aldatu dituzte. Zuhaitzak aldatzea, nonahi eta noiznahi dela ere, ez

dago gaizki, baina horrek ez du Zelai-koekin egindako triskantza justifikatzen. Ez du balio eta noizbait damutuko zarete...

Maddi (Lazkao)

Jaioneren krisia eta Barandiaranen aisia

Ezertan hasi aurretik, eskerrik asko GOIERRITARRA. Batetik, zintzo-zintzo ailegatzen zaizkidalako ale guztiak, eta bestetik, geroz eta ederrago delako zuen-gure produktua. Horrela bada, 42. zenbakian Jaione eta Barandiaranen bi artikulo mamitsu zeuden. Ez nago ohitua zuzendari baten ahotik horrelakoak entzuten.

Eta nirea doa. 10.000 urte berean goaz edota gagoz, hau da, itxurak egiten. Horretarako hitzak ditugu asmakizun eta betekizun, be! eta be!, ardiak bait ginen. Hau lana da, hau aisia, hau atsedena, hau, ... Putza! Egun osoa besteek esandakoa irenstea baino egiten ez dugun garai hauetan hutsik sentitzen gara. Jakina! Besteena irenstea baino ez dugu egiten, zelan arraiio bete ba?! Ezin negona, stresa, lasaigarriak... dena gauza bera da: fotokopia. Gura duzuen

hitza jarri, baina oso gutxi dira ekintzadunak. Gehienak erreazioak baino ez dira, ihesaren ondorioak baino ez.

Bizitza oso erreala da, txisagura, kagalea edota gosea bezain erreala. Gu, aldiz, ideietatik bizi gara, hau da, besteek esan edo egin dutenari, bai, bai, beste horrenbeste gabe, sentsazioak. Sentitu ez. Ideia sekula ezin da sentitu. Sentitu daitekeen bakararra egintza da. Eta horretarako dena ezbaian jarri behar da, eta gero, ondo mastrikatu ostean, gure izango da. Gainantzean, a ze goseak pasa beharrean gauden!, gertatzen ari zaiguna, hain zuzen. Jan dezagun eta ez dugu goserik pasako.

Amaitzeko, izan gaitezen haurrak "zeruan" sartu nahi badugu. Zenbat xahar (7 urtetik gora) bazterretan! Gure iraganak menderatuak. Horrek asperitzen eta zanpatzen gaitu bai! Eta ondorioa baino ez da gure hau, inolako gusto gabeko segi eta segi, 7, 20 edota 100 urtetan. Zenbat gezur bazterretan! Eta zenbat itxura! Gu bai krisia galanta! Pentsamenduaren men. Zein suertea Barandiaranen eskolaumeena, aupa zuzendari! Aupa Jaione!, eutsi goiari!

Pello Sarriegi (Barrika-Bizkaia)



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN

Kiska
PUB

Santa Maria

ORDIZIA



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070
BEASAIN

GOIERRITARRA



88 96 12

Agenda

Intereseko Telefonoak

Arama

Udaletxea:888953

Tf. publikoa:880739

Ataun

Anbulategia (S.M.): . 881025

Udaletxea:881011

Anbulategia (S.G.): ...881251

Ezkio-Itsaso

Udaletxea:721303

Tf. publikoa Ezk.:721303

Tf. publikoa Its.:880315

Gabiria

Udaletxea:880734

Tf. publikoa:881384

Gaintza

Udaletxea:889564

Tf. publikoa:880274

Legorreta

Udaletxea:806225

Eskolak:806014

Taxia:806170

Errezeta



GAZTA TARTA

Osagaiak: ur baso 1, Philadelphia gazta osoa, 2 kutxarada azukre, 100 gr. nata likidoa, sobre erdia limoiezko raiadura, marrubi-mermelada. Bizkotxo ordu bete lehenago eduki behar da eginda.

Bizkotxo egiteko osagaiak: 3 arraultza, 3 kutxarada azukre, 2 kutxarada Maizena eta Royal legamia, labea ordu laurden behar du.

Krema egiteko osagaiak: ur basoa epeltzen jarri eta limoiezko raiadura bertara bota han urtutzeko; gero Philadelphia gazta, 2 kutxarada azukre eta 100 gr. nata likido nahastu eta limoiezko raiadurarekin batera turmixean nahastu. Bizkotxo gainean krema bota eta gero mermelada marrubizkoa jarri. Gazta tarta egin eta gero izozkailuan sartu behar da. Hobeto ateratzen da horrela.

Ixiar Garmendiak emana.

Altzagarate jate-txea, Altzaga

Bota bertsoa



Mikel Aranburu Gaia: Arrantza Doinua: Mutil koxkor bat

Udaberrian sartuak gera
Goierriin bete betean
erreketako arrantza ere
ireki zaigu tartean
kaña luzea eta saskia
harturikan besapean
neska ta mutil edo helduak
amorraien atakean
nahiko denbora izango degu
abuztua bitartean.

Ataun, Zegama, Izal, Mutilo
ta Zaldibiko erreka
gehienetara joaten gera
goierritarrok tarteka
erreka batzu nahiz eta dauden
ia erabat erreta
arrantzaleok egon gintezke
gu esperantzaz beteta
dagoeneko Orian ere
amorraiak daude eta.


ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



**-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR**

**-ESKAILERAK
NEURRITARA**



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

Arkupe

Tapiztegia

Tapizeak - Olie estalkiak - Edredoak
Mantak - Maindireak - Mahai ohialak
Toailak - Gortinak eta osagarriak


Manuel Zeberio

J.M. Barandiaran Plaza
ORDIZIA

☎ 88 00 84

HEGOA TABERNA

**Goierri kalea, 12 (atzekaldea)
ORDIZIA**



Autowag, s.a.



Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.
Tfnok: 88 82 66 - 88 82 54

BEASAIN

Debaldeko iragarkiak

Lana

□Zure edozein motatako in-
prenta lanak egingo ditugu
GOIERRITARRAn. Dei
889612 telefonora lasai asko.

□Informatika ikastaroak
ematen dira Lazkaon. 882174,
Jose Luis.

Salerosketak

□Eskuz eginiko kutxa salgai
dago. Luzeran metro 1 eta za-
baleran 40 zm. ditu. Salneurri
onean. Deitu 161620 tfnora.

Etxebizitzak

□Mutil batek pertsona bat
behar du alokatutako pisu bat
konpartitzeko Ordizian. Dei
GOIERRITARRAra: 889612.

□Pisu bat alokatu nahi dut
Beasainen. Amoblaturik. Ieta-
tik 3etara dei: 881417.

□Ordiziako Altamira auzoan
guztiz amoblaturiko etxebizi-
tza eguzkitsua alokatzen da, 3
logela, sukaldea, egongela eta
bainua dituelarik. Interesatuak
dei 885130 telefonora.



Egutegiak



LEGORRETA

Martxoak 26, larunbata:
16,30etan Pello Añorga ipuin
kontalariak ilustratzaile batez
lagundutako bere lana eskeini-
ko die gaztetxoei Udal Libu-
rutegian. 16,30etatik

20,00etara: Alfredo Feliu Cor-
cueraren "Euskal Tradizioa-
ren Jaiak" argazki erakuske-
taren zabaltzea Kultur Etxean.
22,00etan: Txontxongilodun
Taun-Taun antzerki taldeak
bere "Taun-Taun Show" lana
eskeiniko du Herri Zinemian.

27, igandea: 11,00etan kaleji-
ra Segurako Kriseilu Txistu-
lari- taldearen eskutik.
12,00etatik 14,30etara: "Eus-
kal Tradizioaren Jaiak" era-
kusketa. 12,00etan: Kultur
Etxearen inaugurazio ekitaldi
ofiziala: Ohorez aureskua,
inaugurazio zintaren moztea,
agintarien hitzak, Kultur
Etxearen barrena bixita,
Legorretako dantzari gazteen
emanaldia. Jarraian 14,30ak
arte kalejira Kriseiluren esku-
tik. 16,30etatik 18,00etara ai-
patutako Alfredo Feliuren ar-
gazki-erakusketa Kultur

Etxean (erakusketa hau 29an
17,00etatik 20,00etara eta api-
rilak 2, 12,00etatik 14,30etara
egongo da ikusgai).

ORDIZIA

Rafael Iboleon Adarragaren
pintura erakusketa ("Idiak
Goierrin" tartearen) Barrenan
martxoak 30a bitarte. Bixita
orduak, 11etatik 13etara eta
18etatik 20etara larunbatetan;
18etatik 20etara igandetan eta
18etatik 21etara astegunean.
Apirilak 7tik 22ra bitartean
Luisi Velezen pintura-erakus-
keta eta baita Ekokonsum-en
erakusketa Barrenan. Eliz Pa-
rrokian, apirilak 6an, "Irungo
Atseginak" eta Alemaniako
"Blau-Weiss" akordeoi-or-
kesten kontzertua: Mozart, Si-
belius, J.S.Bach, Haendel,
e.a.-en obrak.

Ordizia/Beasaingo Goardiazko botikak:

Martxoak 26-27: Atorrasa-
gasti; **28:** Cuesta; **29:** Arriola;
30: Urbizu; **31:** Atorrasagasti.
Apirilak 1: Azpilikueta; **2-3:**
Cuesta; **4:** Jauregi; **5:** Laurna-
ga; **6:** Cuesta; **7:** Arriola; **8:**

Urbizu; **9-10:** Jauregi; **11:**
Atorrasagasti; **12:** Azpilikue-
ta; **13:** Jauregi; **14:** Laurna-
ga.

Ordiziako Herri

Antzokia: Ostirala 25:
"Sra. Doubtifiere" (10,15); **26:**
"Sin testigos" (7,30-10,15);
27: "Sra. Doubtifiere"
(4,45-7,30-10,15); **28:** "Sra.
Doubtifiere" (7,30); **Osteguna**
31: "Azul" (7,30-10,15); **1:**
"Todos a la carcel"
(7,30-10,15); **2:** "Azul"
(7,30-10,15); **3-4:** "El Cielo y
la Tierra" (7,30-10,15).

**Mendizaleak: Ordi-
ziako Mendizaleak: mar-
txoak 27:** Lizarrausti-Igara-
tza- Quifosa; apirilak **10:**
Etxegarate-San Pedro-Etxarri.
Beasaingo Aitzgorri M.E.a:
martxoak 27: Kalamua-
Arrate; apirilak **10:** Larrao-
na-Kristinos-Urbasa trabesia.
Idiazabal K.E.a: apirilak **10:**
Trebiño (7,30etan irteera).
Pausogaizto Goierriko
Mendizaleak: apirilak
16-17: Irurtzungo Artazul kai-
noietik jeitsiera; **23-24:** 2 egun
Apellanizen (puenting-a barne).

GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
☎ 88 80 23

LAZKAO



LANCIA
ETXE - AZPI

☎ 88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI



NAUTIKO Jatetxea
eta
IZASKUN Pentsio-Ostatua

ITSASONDO

Tfona: 88 00 12

MASAJISTA
DIPLOMATUA

Xole Zubeldia

Euskalerria, 8
ORDIZIA

☎ 88 10 52

▼ ▼ Ordiziako azoka ▼ ▼

Bertako produktuak. No-bedadeak: Pazkoako erramuak 50-100 pzta. Esparragoak 500 pzta.-k. **Abe-reak:** Arkuma (120 buru), 500 pzta.-k. **Gaztak:** beheiena 600-1.000; ardie-na 1.300-1.600; nahasia 950-1.200 pzta.-k. **Arraul-tzak:** baserrikoak 190-200; 3.a 110-115; 2.a 125-130; 1.a 140; extra 150; superra 160. **Landarak:** tipula, ti-pula gorria, porrua, 250 zientoa; azelga, letxua, udaberriko aza, 400-500 zientoa; tomatea, marrubia 30-40 takoa; baina 20 takoa. **Barazkiak:** atxikoria 40-75 xorta; aza 60-100 bakoitza; azalora 75-200 b.; azelga 50-75 x.; baratxuria 75-100 x.; baratzuri freskoa 100 x.; baba txikia 150-250 k. bo-rraja, espinaka, zainhoria, 50-75 xorta; babarruna 700-900 k.; intxaurrea 450-500 k.; letxua 50-80 b. kalabaza 125-200 k.; patata 40-50 k.; porrua 75-100 x;

tipulina 100 x. **Kanpoko produktuak:** banana 225-250; kiwia 175-200; laranja 80-175; limoia 150; mandarina 275; sagarra 175; udara 175-225. **Kan-poko barazkiak** (bakoi-tza): azalora 200; baba 150; horburua 225-275 dozena; Ilarra 350 k.; leka 550-575; patata 50; piper-gorria 425-475; berdea 300-250; tomatea 275-300; fresoia 295; patata berria 100. **Arrainak:** amuarraia 650; kanpoko antxoa 730; an-txoilra 1.090; bakailaua 1.100; bixigua 1.850; erro-dabailoa 1.700; itsasoilarra 1.210; izokina 1.300; kala-marra 1.250; kariokita 920; legatza 2.200; mediana 1.480; merlenka 1.190; mihiarria 1.410; muxarra 890; perlita 420; sardina 480; angulak 15.000; txi-txarroa 470 -520; txipiroia 1.310; zapoa 1.280-890.

Gurutze Aldabe

Deialdiak



Maskarada: Mons-truo Sakratuak

Maskarada antzerki tal-dea nahiko ezaguna da eus-kal panoraman. Bertan, aurrean dabil Maite Arrese beasaindarra. Bernardo Atxagaren "Logalea zeu-kan ekilibristaren kasua"

antzezlan estrinatuta zuten 92ean. Hurrei zuzenduta-ko ipui xamur bat zen hura, baina adin guztietako ikusleentzat ere aproposa zen. Orain, berriz, humore absurduan oinarritutako "Monstruo Sakratuak" aurkeztu berri dute, Daniel Defoe, Groucho Marx eta Michel Tournierren zen-bait testu erabiliz eta talde-ko sortze lanez baliaturik. Azpeitiako Antzerki To-paketan saria irabazi duen obra hau aproposa suerta daiteke edozein kultur edo festa programan sartzeko ere. Maskarada: Quintana, 8,1.ezk. 48007 Bilbo. Tel-Fax:944467781.

GOIERRITARRAREN 94ko Egutegiak

GOIERRITARRA Ha-mabostekarian edozein ohar, abisu, artikulua, e.a. argitara eman nahiko luketeen elkarte, udaletxe, etxe ko-mertzial, idazle, korrespon-tsal, e.a.-i adierazten zaie honakoak izango direla al-

dizkari hau argitaratuko den datak: apirila: 15a eta 29a; maiatza: 13 eta 27a; ekaina: 10a eta 24a; uztaila: 8a eta 22a. Argitara eman nahi de-na astebeteko aurrerapena-rekin jasotzea eskertuko genuke.

EZ EGON BEGIRA !

Z·M

Gipuzkoako Foru Aldundia
MUSEO · ZUMALAKARREGI · MUSEOA
Ormaiztegi · Gipuzkoa
Diputación Foral de Gipuzkoa

Casa . Iriarte Erdikoa . Etxea
20.016 Ormaiztegi · Gipuzkoa
Tlf.: 943 · 88 99 00
Fax: 943 · 88 01 38

ZATOZ ETA PARTE HAR EZAZU

- ARTXIBO ETA LIBURUTEGIA: XIX mende-ko agiri, irudi, aldizkari, liburuak...
- ARGITALPENAK: Aldizkari, katalogo, bi-deoak...
- IKERKETA BEKAK, ERAKUSKETAK, eta abar.
- MUSEOKO EKINTZAK:
 - Ikonografia lantegia: musika, liburu eta komi-kiak, puzzleak eta abar.
 - Goierriko neska-mutilentzako ariketak:
 - * Astelehenetan: 12-14 urte.
 - * Asteazkenetan: 9-11 urte.
 - * Ostiraletan: 6-8 urte.
- Etorri museora eta ikasi ezazu gure jokoan bidez!
- BISITA ORDUTEGIA:
 - Astelehenetik ostiralera: 10etatik 13etara eta 15eta-tik 19etara.
 - Larunbatetan: 10etatik 14etara eta 15'30etatik 18'30etara.
- SARRERA DOHAINIK



MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



Antonio Berasategi
Lardizabal

**“Kandela argi
handiagoa
eskatzen zuen
Rufinok
artikuluari, bere
herriaren izena
nola den garbi
uzteko”**

Eta urte sasoi beretsuan bizi izandako Lardizabal ere hala izango zela pentsatu behar. Udaletxeko erretratu kenduak zirela eta famatua egin zen Zaldibian -ez horregatik bakarrik, eskerrak- baten batek ukatua izango dio honez gero, Zaldibiako edo dena deneko herriartasuna Rufino Iraolari...

42. GOIERRITARRAN izenburu zirikatzaile samarra asmatzen ibiltzeagatik; herrikoa bai, baina zaldibiarra ez omen zen izan Lardizabal.

Ez dakit Iztuetaren erretratorik daukaten Udaletxean edo beste inon, baina beraren liburuak bai ditugula irakurgai nonahi. Kandela argi handiagoa eskatzen zuen Rufinok bere artikuluan, herriaren izena “Zaldibia”, “Zaldibi” edo nola arraio den garbi uzteko.

Eta Iztuetak (1.767-1.845) behintzat, garbi dio bere herria “Zaldibia” zuela eta ez bestela, bukaerako “-a” eta guzti, alegia; beti. Bere bi liburuetan (“Guipuzcoaco dantza gogoangarriak” eta “Guipuzcoaco condaira”), ez behin, askotan darabiltza he-

Iztueta behintzat bai, Zaldibiakoa

rrien izenak; segurtasun handiz, ia beti arau berei jarraiki, gainera. “Francian”, “Galician”, “Españian”... idazten ditu, gure garaian hizketan ohizkoa den “-a” galera barik. Era berean, gerturago etorri, “Azcoitian”, “Azpeitian”, “Erreterian”, “Donostian”, “Alzanian”, “Bizcaian” eta “Zaldiviako”. Ez da nahikoa ondorio garbi bat ateratzeko, baliteke eta deklinazio atzizkiko “-an” horretan, izen arruntan artikulatu marka baino ez izatea “-a”. Baina Iztuetak badaki “Vizcaico”, “Azcoitico”, “Azpeitico” eta abarren, ondoan, “Donostiako”, “Erreteriano”, “Cestoaco”, “Vitoriara”, “Guetariara”, “Pasayacoa” eta “Zaldiviaco” jartzen. Garbi dago, hortaz: “Zaldibia”koak ziren Iz-

tueta eta Lardizabal. “Olaberriko”, hala ere, Rufinok aipatutako Euskaltzaindiaren izendegiko “Olaberria” auzitan jarri; “Olaberria-a”, orduan.

Eta, horiek gutxi izanda, “Zaldiviatarra”. Ez nuke esango, nolana, hori zenik -nahitaez- bertakoak izendatzeko deitura ohizkoa; “Guipuzcoatar” esaten du beti Iztuetak eta ez “Guipuzcoar”, beharbada, kultismo bateratzailez. Honaino idatzizkoak; ahozkoetan ere begiratzea gauza txarra ez. Garbi dago, “Zaldibiakoa” ez duzula antzinako ahozketasunean trebatutako inoren ahotik entzungo. Baina fonetika bilakaerak bai ekar zezakeela “Zaldibiakoa”ren modukorik. Nik behintzat ezagutzen ditut Goierriko herri batzuetan horrelako hitzetan bokal bikoitzaren arrastoari eusten diotenak: “Donostiako” esango dizute, baina “Ormaiztegiko”, “Legazpiko” eta “Olaberriko”. Begira ezak heuk ere Rufino, horrela Iztuetaren aspaldiko kandela argi erdi itzalduari gure linternatxoarena batzen diogun.

Gero jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILLERRA

B i o K , c . b .

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

ORDIZIA
AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76



GOITGI
OKINDEGIA
Ogigintzan
onenak!!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ♦ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ♦ Opil finak
- ♦ Eguneroko ogia
- ♦ Ogi bereziak
- ♦ Ogi artisaunak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737

URBITARTE Sagardotegia

-Sagardo denboraldiz kanpo ere irekirik as-
teburuetan betiko sukaldaritzarekin



Enkarguak: 888331
ERGOIENA AUZOA
☎ 882719 ATAUN

Besteek esana

Frankismoaren azken urteetan eta diktadura ostean Euskal Herrian plazaratu diren argitalpenen berri nahi duenak Lazkaoko beneditarren komentura jo besterik ez du, hantxe baitaude era guztietako argitalpen garaikideak eta lehenagokoak biltzen dituen liburutegirik osotuena eta aita Juan Joxe Agirre liburuzaina. (...) Dagoeneko 2.500 aldizkari desberdin izango ditu bilduta. Unibertsitateko irakasleak eta ikerlariak izaten dira Lazkaon kontsultak egiten. Garai batean bi bekadun izan zituen sailkatze lanetan laguntzen, baina orain bakarrik dabil. "Esan jendeari aldizkariak-eta bidaltzeko, hemen jaso, sailkatu eta gorde egingo ditugula eta". Aste barruan liburutegia zabalik dago eta aita Juan Joxe prest erakusteko.

"Euskararen Berripapera", 94ko martxoa

Inkesta

Intsumisoak epaitzea zer iruditzen zaizu?



Ruben Martinez
ordiziarra, 17 urte
ikasle eta musikoa

Oso gaizki, ze bakoitzak bere ideiak ditu eta nahi duen bezala jakatu dezake. Inork ez dauka ezertan ezer inori inposatu beharrik eta gutxiago ideia bat denean joan dagoena. Ni ere intsumituko nintzateke, baina dituzun arazo guztiak medio (lan munduaren aurrean, e.a.), bada, oraingoz ez.



Jose Felix Sastre
legazpiarra, 23 urte
tabernari Ordizian

Gaizki iruditzen zait, zigor ejemplarrak jarri nahi dizkiete (2 urte, 4 hilabete eta egun lekoak), zeren agintariekin ikusten baitute gauzak, nolabait, eskuetatik aldegiten ari zaizkiela. Ikusi besterik ez dago nola konpondu nahi dituzten gauzak: manifestazioak egurtuz ari dira han eta hemen.



Joxe Mari Mintegi
ordiziarra, 58 urte
bankaria

Intsumisoak epaitzea gaizki ikusten dut, zergatik bakoitzak bere ideak aramatea libre izan beharko luke: batek militarra izan nahi duela?: eskubidea du, eta nahi ez duenak ez izateko eskubidea ere bai. Atzo bertan, egunkariak zekarren zer nolako errepresioa egon zen Sestaoko manifestariekin. Oso gogor ari dira portatzen.

JAUREGI TOLDOAK s/l

Tfonoak: 880243 - 880133
BEASAIN



ARGAZKI DENDA

Argazkien errebelatua ordu betean
Tfona eta Faxe: 88 04 78
Nafarroa Etorbidea, 1. BEASAIN

UNTXUNDEI Garajea



OSINALDE Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI



ZABALE

OKINDEGIA
DIETETIKA

- Mediku akupuntorea
- Pisua kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

Ba al dakizu...?

Goierriko turismo-bideak

Aisia eta turismoari buruzko garapena aipatzerakoan, lehen helburuetako bat bertako biztanleek Goierri deskubritu dezatela, hemen bertakoa-ren jakitun izan ditezela litzateke. Gure bailarak, bere kaletar eta nekazal alderdiekin, espazio eta identitate ezberdina daukala eta sentsibilizatzea goierritarra. Interes guñeak sortzea, hemen bertan dagoen ondare historiko-artistikoaren berreskuratzea eta ibilguneak antolatzea ezinbesteko dugu denok. Guzti hau dela eta, turismo promozioa eta informazioa zabaltzearen, triptiko koloretsua atera du "Goieki"n, Goierriko Udal guztien laguntzarekin. 20.700 ale atera dira "Euskalerrria. Zatoz eta konta ezazu" titulupean (18 herrietako ezaugarritxo batzuk bertan), erdiak euskaraz eta besteak erdaraz. %25a bailaraz kanpo zabaltzeko asmoarekin eta gainontzekoak udalerriz udalerriri, proportzionalki biztanleen arabera banatzeko. Triptiko hau Eusko Jaurlaritzako Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailak subentziona-tu du %50ean. Zenbait herritan banatu dira jada.

GOIERRITARRA hamabos-

terokoa editatzen dugun GKEkook hitzarmen bat sinatzekotan gara Goierriko udal eta alderdiak baitaratzen dituen "Goieki"rekin, zuzendaritza adostu ondoren. Iazko dirulaguntza, miloi ingurukoa guztira, hirukoiztuko litzai-guke, behar-beharrezkoa duguna, per-tsonal, inprimategi- gastuak eta gai-nantzekoak ordaintzeko, zuk, irakurle horrek, dohain jaso dezazun aldizkari hau, posta bera ere ordaindu gabe (12 pzt.-aleko). Gure aurtengo aurrekon-tua (zuloa) 14 miloitakoa da.

Aralar parke naturaltzat de-klaratu du laister Diputazioak. Izendapen hau izango duen Gipuzkoa-ko lehen gunea dugu honakoa.

Asteartero, 19,30etan, egingo da Lareoko urtegi amuarrainak arrantzatzeko paseak lortzeko zozketa Beasaingo "Aitz-zorrotz" Elkartean. Zozketa bakoitzean 14 pase emango dira eta ezinbestekoa izango da arran-tzu lizentzia egunean eukitzea. Iazko maiatzetik iraila bitartean ia 5.000 amuarrain atera zituzten arrantzaleek Lareotik. Aurten, 15 egunetan ia 1.500 lizentzia eman ditu Ordiziako Nekazal Etxeko goardak.

Iaz egun batean bakarrik gain-ditu zen kutsadura ametigarria egiten duen muga Olaberritik Ordizia bitar-tean. Kutsadura arazo haundienak 90 arte eman ziren Aristrainek ke eta gas arazketa montatu gabe zeukan artean; geroztik arazoak desagertu dira. CA-Fetik ere, zenbait haize boladekin, hau-ts dezente zabaldu ohi da, baina Dipu-tazioko Ingurugiro sailak egin berri duen ikerketan, bertako kutsaduraren graduak legedietan markatutako mu-gaz azpitik daudela diote.

Hainbat baserritar iruzurtuak eta engainatuak izan dira azkenaldian: kutxak, uztarriak, gurpilak eta antigua-leko mogleak lapurtu zaizkie, euskaraz hitz eginez etorri jendea eta ETB edo beste erakunderen baterako filmatzeko behar dituzten aitzakitan. Iaz gisa be-reko dozenardi bat lapurreta egin ziren Gabiria, Ormaiztegi, Idiazabal eta Beasainen.

Beasain, Ordizia eta Lazkaoko alkateak izan berri dira Madrilen Laz-kaibarko pasonibelari buruz hizketa egiten. Orain hilabete batzuk gertatu-tako istripuak eragin dute berriz gai hau azaleratzea eta puntu beltz hori kentze-ko gestioak egitea.



BISITA ORDUAK
Larunbata: 11etatik, 14etara
 16etatik, 18etara
Igandea: 11etatik, 14etara
Lanegunetan: 10,30etatik,
 14,30etara, aurretik deituz.
 ☎ 80 17 24



✓ Eguneroko menua, 750 pzt.
 ✓ Karta, batz beste, 2.000 pzt.

☎ 88 10 19 ATAUN S. Martin

albisu
 KRISTALDEGIA

Ordiziako Industrialdea - Pabellón. 40
 Tel. y Fax: 88 71 58
 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

**Carasa, Cilveti,
 Lacort y Cia., S.A.**
 Aseguruen Korreduria
 Martin Alustiza

Ekaitz Bulegoak ☎ 88 69 53
Domingo Unanue, 3 ORDIZIA



Hirigoien, 12
 LAZKAO

☎ 16 10 16

ATAUN. Aspaldiko urteetan izan ez den etxebizitza eskaintza orain-txe hasi da berpizten piska bat. San Martin auzoan egiten ari dira etxebizitza hauek.

ORMAIZTEGI. Aurkeztu berria da Serafin Esnaolaren "Euskal apaizgoa klandestinitatean (1940-68)" obra mardula. Josemiel Barandiaranek eginiko manifestu batekin hasten da eta Beasaingo orduko lan gatazkekin segitzen du. Autorea errezildarra da eta 64 urte ditu, gazterik Ormaiztegiratu zen eta bertako seme ere badela esan liteke. Mari Karmen Garmendia laguna du eta aurkezpenean izan zen.



Zumalakarregi Museoaren alderdi ezberdinak ezagutarazteko premiak sortu berri du "ZUMALAKAberri" aldizkaria, aldi berean, historia ikerketa eta zabalkuntzari buruzko eztabaidagune izan nahi duelarik. 1. aleak Historia Museo horretatik eta bere edukietatik barrena ibilbide bat eskeintzen digu, bere zerbitzu desberdinen bitartez.

BEASAIN. Beasaingo Alkartasuna Lizeoa ikastolan iazko maiatzaren 20an sare publikoan sartzeko hartutako erabakia baliogabea dela erabaki du Tolosako epaileak eta baita publikazio bidean eman diren pausu guztiak ere. "Batzarrak egindako bilkuran ikastola sare publikoan integrazteko hartutako erabakia baliogabea da. Era berean, baliogabeak dira bilkura horretan hartutako erabaki guztiak", dio. Azkenik, titularitate pribatura itzultzen da zentrua, "kooperatibaren titularitate pribatukoa izaten segitzen du" nabarmendu du epaileak.

Koldo eta Arantza Iparragirre anai-arrebak, Porrusalda atalean, Euskadi Irratiaren Trikitixa Pieza

Berrien Lehiaketako saria irabazi dute, Lazkao-Txikiren omenezko "Abaliñe" piezarekin. Koldo eta Arantza ez dira berriak lahiaketa honetan, iaz Trikitixa atalean "Murumendiko dama" piezarekin irabazle suertatu baitziren. Bestalde, La Sallen jokaturako 3. Umeen Aurreku Lehiaketan ez zen bat ere goierritar partaiderik azaldu.

Piskanaka altxatzen doaz Antzizarko bidegurutzeko skalextrika sostengatuko duten hormigoizko zutabeak. Castiloko kruzea ordezkaturako duen honen obrak ohizko geldialdiak eragiten dituzte N-1an.

LAZKAO. Aurtengo ikasturtean San Benito Ikastolak bere 30. urteurrena ospatzen du. Hori dela eta apirilak 17 igandean, polikiroldegian elkartasun bazkari batean bilduko dira atzo eta gaurko ikasle, irakasle eta gurasoak. Bazkarian parte hartzeko txartelak salgai daude Ikastolako bulegoan eta herriko zenbait establezimendutan, 2.500 ptan.

Juan Antonio Arruabarrena lazkaotar enpresariari bidalitako bonbapakete bat indargabetu zuen orain dela gutxi Ertzantzak. Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak jakitera eman zuenez, Lazkaoko enpresan jaso zen bonbapaketea enpresariaren izenean, nahiz eta bera Zaragozako Pina del Ebro herrian bizi den orain hilabete t'erditik.



Tfona: 885500

ORDIZIA

IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfnr. 88 95 83

20210 LAZKAO
(GIpuzkoa)

RENAULT
AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO



Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN

TENE MUJIKA SARIKETA IRABAZI ZUEN IPUI BATEKIN ZEGAMARRAK

Joxe Mari Azurmendi: "Euskal baserri-giroa ezin da gazteleraz eman"

Liburu bat egiteko laburregia eta literatur aldizkari batean kaleratzeko luze samarra zela eta, Tene Mujika sariketara aurkeztu zuen "Joxeren historia" ipuina eta irabazi. Poztu eta harritu egin zen, gogoberritu.

11 orrialdeko ipuina da. Idatzi duen eta argitara eman duen lan bakarra. Istorio bat osatu behar zuela pentsatu gabe hasi zen idazten, kasualitatez, denbora betetzeko, "eta idazten hasi eta gero, puska bat idatzita ikusi ez nuen arte, ez nintzen konturatu ipuin bat atera nezakeela". Hasi eta bukatu artean astebete igaro zen, ez tentsio handirik izan gabe.

Herriko mutiko guztiak gela berean nahaspilatuta, liburu bakarra dutela eskura, gramatika, historia sakratua, Espainiako historia... ikasgai guztiak biltzen dituen 'Enciclopedia Alvarez' delako ale mardulean... 1960 inguruan, berak 10 urte zitueneko garaian, herriko eskolan da. Hortik abiatuta osatu zuen "Joxeren historia" ipuina.

"Ipuinean, alde batetik gainontzeko eskola lagunen sentimenduak zeintzu diren imajinatzen saiatzen nahiz eta, hori kontatu ahala, Bibliako Joxeren historia kontatzen dut; artzain mundu

bateko historia da eta, ni ere baserrikoa naizenez, kokatu dut nere baserri giroan". Egiazkoak dira ipuineko hainbat pertsonaia eta leku; hala nola, Joxe edo Julio, munduan asko ibilitakoa bata eta honen anaia artzaina bigarrena, Joxe Mariren anaien pareko. Nonnahi aitatzten ditu Zegamako baserriak, bideak eta zelaia, hainbatetan Joxe Mari behizain ezagutu zuten horietan.

Herriarrek, familiakoek irakurri egin dute ipuina eta asko gustatu zaie, izugarritzko hizpidea eman omen du. "Pentsatzen dut, nik bezalaxe, berriro bizi izan dituztela kontu zahar haiek. Eskolako bizipen horiek, lagun artean edukitako abenturatxoak, haserreak, maisuarekin izandako gora-beherak, gutxi-asko, guztiok izan ditugu". Zegamatik kanpora ere, batek baino gehiagok ikusiko du bera garai batean izandako mutikoa Azurmendiren lanean. Euskal munduan, baserri giroan eta zegamar mutiko bati gertatutako istorioa izanda, euskaraz idatzi du. Erdaraz idatzita tokiz kanpo omen legoke. "Erdaraz zer esanik ez dut nik. Erdaraz idazteak esan nahi du erdaldunentzat idaztea eta nik erdaraz ez daukat zer esanik, ez daukat kontakturik mundu erdaldunarekin. Eman dezagun, nik historia hori erdaraz idazten dudala, nork irakurri behar du? Nongo erdaldunak? Erdaldun bati zer transmititzen dio?".



Literaturak "indar berezia"

Hautzaro gazi-gozoa izan zuen, baina ez ditu oroitzapen horiek saltzeko. 11 urterekin utzi zuen Zegama, Arantzazura joan zenean. Beste ikasgaien parean, indar berezia zuen beretzat literaturak eta horregatik ikasi zituen Hispanikoak. Artean ikasle zela hasi zen lanean Illazki euskaltegian. Handik HABEra; bertan jarraitzen du. Hotzikara izaten du lehenengo eskola egunak gogora ekartzean. Asterixen eta Tintin eta Miluren istorioak itzuli ditu Elkarrentzat. Askok irakurtzen du, "liburu zelebreak", eta istorioaren hariari baino gehiago erreparatzen dio kontatzeko moduari. Norbait mirestekotan, Joxe anaia. "Eraginik izango zuen nigan", aitortu zion iaz "Egunkaria"ko Alazne Iturriotzi.



GOIHERRIKO MENDI - NEKAZARITZA ELKARTEA
SANTA MARIA KALEA, 4 - TEL. 88 86 77 88 17 93 - 20240 ORDIZIA

KALITATEZKO ELIKADURA OSASUNAREN OINARRIA

* Janari onak ez du zertan luxu artikulu izanik!
* Eros bertako produktuak! Hauek eskeintzen dizute kalitate onena.

Joseba Jaka, editore/saltzaile zegamarra (eta II)

GOIERRITARRAren 40.ean Joseba Jakarekiko elkarrizketaren zati bat argitaratu genuen. Hona hemen haren segidakoa.

(...) Gero Iparraldera joan behar izan zuen. "Badakizu orduan, 73 aldean, nola izaten ziren gauzak: politika eta kultura ez zebiltzan oso aparte eta. Kontu hauetan Zumarragako Iñigo Jakak sartu ninduen, orain onkologikoko zuzendari denak". Biak Zumarragakoak eta abizen berekoak, baina ez dira familiakoak. Aspalditik ezagutzen zuen, eta haren aita ere bai, Anjel Kruz Jaka historialaria. "Hala ere ni ez nintzen inoiz pistolarekin eta ibili: kotxez eramane nuen jendea, batetik bestera. Karnetea errepresentante nintzela jartzen zuenez, ez nuen arazorik izaten. Dena dela, halako batean alde egin behar izan nuen, eta gogoratzen naiz Iñaki Beobiderekigara igaro nuela muga, bere kotxean, normal- normal, orain 20 urte". Handik 3 egunera, Carrero Blanco hil zuten.

Iparraldean diskoak saltzen

Iparraldea igarotakoan, "Erakundeak ni Hegoaldera etortzea nahi zuen, baina nik esan nien kultura gauzetan aritzeko bazen bai, bestela ezetz. Pipa eta guzti bidali nahi ninduten ordea eta nik orduan utzi egin nuen. Hango kultur giroan mugitzen hasi nintzen. Jokin Apalategi ataundarra Parisetik etorri berria zen, Paulo Iztueta ere han zen, Beñat Oiharzabal orain euskaltzaina dena eta beste gazte batzuk ere han ibiltzen ziren Euskal Gogoa izeneko liburudenda batean eta euskarazko klaseak ematen, baina seriotasun handirik gabe. Orduan Jokin eta biok Zabal liburudenda zabaldu genuen Baionan". Soldadu joan aurretik irabazitako dirua jarri zuen horretan Jakak.

Jokin dendan egoten zen eta bera Iparraldean zehar liburuak eta diskoak saltzen. Batetik Beobidek ateratzen zituenak. Eta bestetik Elkar disketxe txikia ere han ari zen, Manex Pagola eta

Gexan Lantzirik bultzaturik. "Nik proposatu nien batzuei eta besteei beren diskoak banatuko nituela. Oso ondo joan ziren gauzak, Pantxoa eta Peioren diskoekin. Gero Elkar birfundatu egin genuen: lehen Iparraldeko 20 bazkide ziren eta horiekin Hegoaldeko beste 20 elkartu ginen, jende ezaguna, Joxe Azurmendi eta".

Hegoaldean, anaiak ikastolentzako liburuekin segitzen zuten, "baina ni ezin hara joan eta haiei ere ez zieten pasaportetik ematen. Orduan, kontaktuan segitzeko, nire emaztea, orduko andregai ibiltzen zen". Mari Jose Irizar beasaindarra, berau. Errefuxiatu baino lehentxeago ezagutu zuen, bera medikuntza bukatzen ari zela. "Orduan, asteburuetan bisitan etortzen zenerako nik zintak grabatuta izaten nituen, anaiei zer egin eta esateko, eta Mari Josek eramaten zituen. Beste batzuetan Larrun mendiko tontorrean elkartzen ginen, bi aldeetatik etorrira, eta noizbait Orhiko borda batean ere bai.

Bilintx liburudenda, arrakasta

Gauzak normaldutakoan, 76an itzuli zen, eta Zabal-eko eskema ezarri zuten hemen ere: liburudenda eta banaketa. Zabalen jarritako dirua berreskuratu eta Bilintx zabaldu zuten, Donostiako Parte Zaharreko Fermin Calbeton kalean. Kreditua ere eskatu behar izan genuen eta gogoratzen naiz abalista Mari Joseren izeba Juanita izan zela, Beasaingo Aranburu zapa-terikoa". Ospe handia lortu zuen Bilintx-ek, almazena ere bertan baizuten, baina euskal kulturari bete-betea emandako lehen liburudenda zen eta oihartzun handia lortu zuen. 2Pentsa, inaugurazioa ere zuzenean eman zuen



Herri Irratiak, orain Diputazioan da- goen Jose Ramon Beloki legazpiarra- ren bitartez. Dendari ere jende ospe- tsua geneukan, Balere Bakaikoa eta...".

Hortik aurrera etengabeko lana, bai- na egoera normalagoan, eta pixkanaka haziz joan dira. Baina beti filosofia be- rari eutsi diote: "ateratako irabazi guzti-guztiak kulturaren beharretara- ko sartzea beti, guretzat ezer hartu ga- be. Horrela lortu dugu azpiegitura sendotzea, gure proiektuak dituen 3 ataletan: liburuak sortu, banatu eta saltzea". Eta horretantxe segitzen dute. Horrez gain, etorkizunari begira beste proiekturik badute. Euskal kultur- an gauza asko dago egiteko, eta Joseba, Jakatarrak eta beste liburuetan espezia- lizatu badira ere, ez dute gainerakoa erabat ahazten. "Betidanik egon gara ikastolari oso loturik, eta gure lagun- tza ere ematen diegu hainbat ekimeni: Egunkaria adibidez, edo Bertsolari al- dizkaria...".

 Xabier Mendiguren

Telefono berdea

GOIERRITARRAren bitartez, zuei zuzentzen gatzazkizue, Telefono berdea deritzaion zerbitzuaren berri emateko prest. Zerbitzu hau iazko apirilak 1etik Nafarroan, EAEn eta Errioxan martxan dago. Telefonoaren bitartez informatzen dugun dohaineko zerbitzu bat gara; ingurugiro, ekologia, kontsumoa, medikuntza naturala, aisia, nekazal turismoa, heziketa, elikadura,... bizitza kalitatea azken finean. Gai guzti hauetaz hiritargoan sortu den kontzientiazioari erantzun asmoz jaio da Telefono berdea, eta hiritargoak eduki dezakeen kezka edo arazoei konponbide bat emateko, hortarako dagokion profesional, enpresa edo elkarteekin harremanetan jarritz.

Horretarako, honako helbideak aurkitzen diren datu-base zentral bat daukagu: aholkulari juridikoak; ingurugiro heziketan lan egiten duten enpresak; consulting (ingurune-inpaktu azterketak, biabilitate planak, e.a.); berzikla-

tze lanetan jarduten diren enpresak (papera, beira, pilak, tetrabrik, erabilitako olioak, toner kartutxoak...), hala nola, paper berziklatu eta kloro gabekoa fabrikatu eta banatzen dituztenak, pintura mineralak...; aholkularitza teknikoan diharduten enpresak: nekazaritza biologikoa, nekazal garapenerako planak, lurraldeko orientabide proiektuak, baliabideen gestioa eta nekazal espazio naturalen babespena; ondoko arlotan lan egiten duten profesionalak: medikuntza naturala, elikadura, nekazalturismoa, aisia, kontsumo naturala, e.a.

Helburuetan dugu eragitea: ingurugiroa kaltetzen ez duten kontsumo ohiturak eta turismoan; osasunez bizitzeko moduak, terapia naturalak; inguruan murgiltzeko eta garapen pertsonala laguntzeko ekintzak; eta hiru hitz hauen legea: gutxitu, berziklatu, berrerabili. Bitartekatuz: enpresen eta hauen produktuekin interesatuak dau-

den pertsonen artean; profesionalen eta beraien beharra dutenen artean; ekintza ezberdinak egiten dituzten elkarte eta hauei buruz informazioa behar duten pertsonen edota talde batera laguntzeko sartu nahi dutenen artean.

Informatu: ekintza eta kurtsoak ("postgrado" kurtsoak, naturismo ikasketak, ekologiarekin erlazionatutako ikasketa berriak, e.a.); herritarrak bere salaketak jarri ditzan elkarte ofizialetan, kasu bakoitzean aholkatuz zein den toki egokiena bere arazoa konpondu ahal izateko; lana egiten dugun arloetan zalantzak agertzen direnean; sakonago informatu ahal izateko nora jo dokumentazioa bilatzeko. Era berean, gai guzti hauetaz egin nahi duzuen edozein kontsultarako prest gaituzue 330500 telefonoan.

Arantxa Aierbe
(Beasaindar biologoa)

Arrastoan



Jokin Apalategi ataundarra

43. urtean sortu zen Ataungo Apalategitarra. Filosofian lizentziatua, Pariseko Ecole Pratique des Hautes Etudes-en diplomatua, eta Soziologian doktoratua da. Euskarazko aldizkari andana batetan eta erdarazko zenbai-

tetan ere idazle dugu. "Zeruko Argia" aldizkarian hasi nintzen idazten, 1965.an ondo banabil. Geroztik, nire kurrikuluma begiratzan baduzue, toki askotan eta adierazpen medio ugaritan espresatu naiz", dio. Ez da gezurra! Gehienbat soziologia eta politika-gaiez idazten du. Autore bezala, *Nationalisme et question nationale au Pays Basque*; *Los vascos, de la nacion al Estado*; *Burnitik*; *Los vascos, de la autonomia a la independencia*; *Gatazka eta bortxa*; *Herria: sistema eta teoriak* e.a. argitaratu ditu.

Koautore bezala berriz, *La represion au Pays Basque*; *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian*; *Marxismo y la cuestion nacional vasca*; *Sei idazle plazara (I eta II)*; *Autodeterminacion de los pueblos: un reto para Euskadi y Europa (I eta II)*; *Psicosociologia del adolescente*; *La droga*:

reflexion multidisciplinar; *Euskadi ante la historia*; *Nacionalismo y Socialismo en Euskadi*; *Askatasunaren ibilaldia*; *Euskal Herriaren oihua*; *Gartzelatuena gartzela*; *Baloreak eta irakaskuntza*, e.a. Walt Disney-ren Animalien bizitza izkutua, Los pastores vascos, Gizarteen jakintzak eta Levi-Strauss-en Arraza eta kondaira itzuli ditu, esaterako. 90az gero "Uztaro" aldizkariaren zuzendaria da eta 91az gero Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutuaren kozuzendaria da, EHUn Soziologia Orokorreko irakasle titularra izateaz gain. Goierrirekin ez du harreman gehiegirik. Baionan bizi da eta Atauna "joaten naiz arteka, baina ez dut denbora gehiegi bertan pasatzen. Ondorioz, harreman tipiak ditut herritarrekin. Hala ere, nire bizitza hortaz ere egina egoten jarraitzen du". Ondarea ez da deserrotzen.

Prozesioa: historia, ohitura, artea, erlijioa, bitxikeriak

Garai batean Aste-santuko prozesioak herri guztietan egi-ten baziren ere, gaur egun Gi-puzkoan mantentzen den ba-karrenetakoa Segurakoa da. Azken Kontzilioaren berri-kuntzek eraginda izkutarazi zi-tuzten gehienak. Seguran ere, bertako apaizek elizbarruan bakarrik egitea erabaki zutela-ko, haserre bizia sortu zen he-rrian orain 258 urte. Udalbatza bildurik, aintzinako ohiturari eusteko eta gehiago halakorik ez egiteko agindu zitzaizen eliz-gizonei 1727ko apirilaren 12an jasotako udal-agiri batek dioe-nez. Historian zehar ez da go-ra-behera bakarra izan.

Garai bateko ohiturak ondo gordetzen jakin izan duen he-rrietakoa da Segura. Herriari begiratu besterik ez dago. Bai-na etxe eta kaleek bakarrik ez gaituzte lehengo garaietara eramango. Zenbait ohiturari ere aintzinako kutsua nabari zaio. Ostegun eta ostiral-santue-tako prozesioak honen lekuko dira. Herriko 3 kaleak zeharkatzen dituzten pasoak xumeak eta ikusgarriak dira era berean. Salvador Carmona irudigile barrokoak landutako San Juan eta Ama Doloretakoa dira aipagarrienetakoa.

Adin eta mota desberdinetako jen-deak parte hartzen du: santu eramai-leek, penitentzi egileek, nazarenoak, txistulariek, koruak, erromatar solda-duek, aingeruek, San Migelek,...



Halabeharrez, erromatar gudariek gudalburu berria izango dute.

Erromatar kapitain berria aurtan

"Ezkerretara!", "eskubitara!", "au-rrrera!", "geldi!" aginduak, 24 urtez ka-pitain lanetan aritu zen Joxe Agirrerren ilobak emango ditu, halabeharrez, au-rrrerantzean. 4 urtez soldadu aritu ondo-ren, erreleboa Jon Agirrek hartuko du. Gudalburu aproposa, bere 1,92 metro-rekin eta 20 urterekin.

Bitxikeria aipagarriak

* 1906an soldaduen jantziak berritu zirenean, herriko mutilik handienen

neurriak bidali zituzten nonbait Parisera, eta deskuidoren bat izango zelakoan, neurriak ondo hartu eta berriro bidaltzeko agindu zuten Frantziako hiribu-rutik.

* Duela gutxi arte nazareno jan-zen ziren umeak prozesio on-doren eskean aritzen ziren me-riendaren bat egiteko asmoz.

* Ostiral santu egunez, sermoi-lariak eta San Migel aingeruz janzen denak alkatearen etxean bazkaldu ohi dute.

* Orain dela gutxi arte, ostegun santu eguerditik larunbat santu gauera arte, soro eta baratzetan ereiteko hazia etxe aurreko ata-rira ateratzen zuten baserrita-rrek, hantxe haize freskoaz garbi zedin.

* Ostiraletako funtzioaren on-doren, gurutz-iltzatuaren irudia askatzeari ekiten zaio sermoila-riaren agindura. Garai batean, trumoi eta tximist hotsen artean jaitsi ohi zen gurutzetik, txapa batzuk astinduz eta polbora errez.

Ez dira bitxikeria bakarrak. Egun hauetan Segura bixitatu nahi duenak, historia, ohitura, artea, erlijioa eta bi-txikeriak tartekatzen diren ikuskizuna topatu ahal izango du.

 Joseba Telleria

ELORRIPE
edaritegia

☎ 801002

SEGURA

Giro
atsegina
eta
pintxo
bereziak

SANTA BARBARA
Karrozategia

Juan Mari Oiarbide

Kale Nagusia ☎ 801160
SEGURA

Marruekos bidaia abuztuan

Hainbat aldiz entzun dugu egungo gazteek ez dutela ekinbiderik eta, denbora pasa ezinik, tabernetan murgildurik dabilazala. Hau beti horrela ez dela azaltzeko ze hobeto herriko gazteon proiektua ezagutzea baino. Bertako 7 gazteok, hemendik atera eta kanpoko etnia, hizkuntza eta kulturak ezagutzeko asmoa dute. Furgoneta bat erosi eta kanpora ateratzearen ideia hori aspalditik zerabilten buruan. Hau ordea, ezinezkotzat, utopiatzat jotzen zuten. Beraien ideia errealtate bihurtzeko, gogor lan egin dute azken urteotan. Geroz eta gertuago ikusten dute helburua.

Hasieran ideia zutenak elkartu, talde bezala dirua ateratzeko zituzten aukerak aztertu eta lanari ekin zioten. Goierri-mailan bi asteetan behin propaganda banatzen aritzeak lagundu dien arren, benetako diru-iturria bi urtetan jarraian herriko festetan jarritako taberna izan da. *"Hasieran, furgoneta erosi ahal izateko kapital handia behar denez, gogor lan egin beharra ikusi genuen. Dirua beti ondo etortzen denez, Hor dago koska txikiaketa joateko asmoa daukagu, ea zortetik dugun. Abuztuan abiatuko gara; ikasleak garen bezatxuk eta langileak besteak, zaila izango da agian orduan denok libre izatea, baina ahal dugun neurrian konpontzen saiatuko gara, zazpiok joan ahal izateko"*.

Oraindik ibilbidea guztiz zehaztuta ez badago ere, ideia nagusia Marruekos aldera joatea da. Betiko bidea jarraitu ordez, herri haundietan geratu ordez, herri txikiaketa giroa ezagutzen saiatuko dira. Beti ere, alde aurretik guzti honetaz informatu beharko dute eta orain artean erlaziorik izan ez duten



Gorka Etxarri, Jon Iparragirre, Igor Iriondo, Rober Gelbentzu, Gorka Egialde, Xabier Telleria eta Aitor Goiburu.

arren, badute "Nairobotarra"ren telefonoa. Hasiera batetan Europa aldera joatea ere aukera bat izan zitekeen, baina gurearekin alderatuz guztiz kultura ezberdinak ezagutu nahi zituzten. *"Horregatik, km. oso gutxitan bizimodu ezberdin asko ezagutzeko aukera ematen digulako goaz hara; agian hainbatek, gu gazteak izanik, ez dute ondo ikusiko Marruekosera joatea, baina gure asmoa ez da "betikoa". Nolabait esateko, abentura gosea daukagu eta badakigu bidaia gogorra izango dela. Gainera, gure proiektua ez da hor bukatzen. Aurrera jarraitzea pentsatzen dugu, furgonak irauten duen bitartean behintzat"*.

Bidai bat egiteagatik soilik taberna jartzea gaizki iruditu zitzaion jendea ere bada herrian. *"Jendeak bidai soil*

bat dela pentsatzea, geure errua ere izan liteke, ez bait genuen behar bezala informatu. Geure proiektuaren zehaztasunak jakitean espero dugu ulertuko dutela arrazoia. Gaztea ezin da geldirik egon, ikasi egin behar du, bere burua gaintitu... baina horretarako nahitaezkoa da dirua. Gaurko gizarteak gazteari aukera asko eskaintzen ez dizkionez, bere baitan dauden aukera guztiez baliatu behar da". Horixe bera egin dute. Bidaia amaitu ondoren "Izal"go herrian filminak erakutsiko dituzte, bertan egindako eta ikasitako guztia azalduz. Oraindik denbora dexte falta bada ere, proiektua errealtate bihurtu dezaten opa diegu GOIERRITARATik.

 Estitxu Imaz



JATETXEA
Juan Rubio

- Menuak "Self-service"an:825 pzta.
- Enpresentzako menu bereziak:1875 pzta.
- Asteburuetak menuak (enkarguz):.....2500 pzta.
- Afarien zozketak bezeroen artean.
- Bankete, ezkontza, jaunartze, despedida eta ospakizunetarako eskatu aurrekontuak.

Merkatal Zentrua

☎ 16 02 15

OLABERRIA

IBAI - ONDO



ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN

Oporrak pasatzera nora? Lazkaomendira

Beste hainbaten antzera baserri koxkorra dugu Lazkaomendiko Lizargarate. Orain arte egunero kalera esnea salduz jardun dira, baina aspaldi hasi zen kalera saltze hori debekatuko zutenaren hotsa. Arrazoi hau izan da nagusia Nekazal-Turismo honi ekiteko. Esnea partitzeari utzi eta ordeztu bezala, baserriari etekina ateratzen jarraitzeko asmoz, diru aldetik osagarri bezala ekin diote esperientzia berri honi.

Denetariko jendea hurbildu da Lizargaratera. Bikoteetatik hasi eta etxe guztia hartzerainoko taldeak izan dituzte. Izan duten jendearen gehiengoa erdalduna da, Espainia guztitik etorritzen dira. Baina horrek ez du euskaldunik ez denik ibiltzen esan nahi; ezta gutxiagorik ere! Adinari dagokionez, sasoiko jendea da nagusi 25-40 urte bitartekoa. Maixu, maistra, arkitektu, abokatu, mendizale... Zer ez dugu izan Lazkaomendin? Lizargaratera hurbiltzen denak gure bazterrak eta otordu goxoak ezagutzeko aukera izaten du. Batez ere, kanpotik etorritakoei baserrikoek erakutsi ohi diete zer ikusteko aukera duten. Hala nola Aralar, Txindoki, Aizkorri, Loiola, Arantzazu edo Lazkaomendi bertatik oinez Zaldibi, Ataun eta inguruko herriak ezagutzeko



aukera. Normalean etxean gosaldutako eguna kanpoan pasa ohi dute bazterrak ikusiz, iluntzean berriro itzultzeko. Ez dute hoteletan bezala jatorduetarako ordutegi jakinik. Jendea nun gogoan hantankoa ibili ohi da, askatasun osoz eta hori asko estimatzen omen dute.

Oporretan izaten dute betekadarik handiena, baina asteburu luzeetan ere jende ugari mugitzen dela diote. Oporrak ez direnean, ustekabeen ere etorri omen da jendea, baina ez da gomendagarria; etorri eta lekuri gabe topatzeko arriskua ere bai bait dago.

Euskal Gobernuak urtero Nekazal-Turismo etxeak agertzen dituen gida bat kaleratzen du eta jendeak handik egiten du aukera. Ondoren telefonoz deitu eta lekua hartu besterik ez da egin behar. Prezioa, zenbat logela eta zenbat komun hartzen direnaren arabera iza-

ten da. Gidan bertan jartzen du logela bakoitzak zenbat balio duen.

Oraindik denbora luzea ez daramaten arren, 93ko udaberriaz geroztik, Lizargarateko nagusia den Joxe Martin Esnaola gustora agertu da, batez ere zeinen jende jatorra joan zaien adierazterakoan: "Oso jende ona, hemengo gauzen berri jakin nahi dutenak" omen dira, "bakar bat ere ez txarrik!" Horren ezaugarri moduan gabonetan postal ugari jaso omen dute, Lizargaratera berriz bizkotxo goxoa jatera lehen bait lehen etortzeko gogo biziz daudela esanez.

Errolda datuak

1993ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, Lazkaon 32 ume jaio ziren, hildakoak 21 pertsona. Beste herri batzuetatik 96 lagun etorri ziren eta 157 joan. Atzeritik etorritako bi lagun ere izan ziren. Batuketa eta kenketa guztiak eginda 1994. urtean 4.986 biztanlekin hasi genuen. (Udaletxetik lortutako datuak).

*Argider Mujika
Mari Joxe Madariaga*

IDIAZABALen 8 ETXEBIZITZA BIKAIN saltzen ditugu

92 m² erabilgarri + trasteleku eta garajea

PREZIO OSO INTERESGARRIAK

Gaur egungo benetazko ordain-mailara egokiturik bait gaude



Informazioa eta salmenta:

Isabel II Etorbidea, 7. Donostia Tfnoak: 450721 - 452955

KUKO Jatetxea

- Haragietan aukera handia
- Okeletan mundu oso bat

Igandeetan jai, erreserbak salbu
(bataio, jaunartze, e. a.)

Berjaldegi Plaza, z/g 88 28 93
ORMAIZTEGI

Elkartek, eskolek: denak dute banderaren bat

□Dagoeneko hasita dago urtero jokatzen den elkarten arteko mus txapelketa. XIaren antolatze-lanak aurten "Argi Berri" Elkarteari egokitu zaizkio. Elkarre bakoitzak bi bikote aurkeztu ditu eta astean zehar jokatzen ari dira. Finala bihar 25 izango da. Azari Elkarreak, berri, Zuzendaritza-junta eraberritu du. Lehendakari Agustin Iparragirre, lehendakariorde Juan Urbizu, idazkaria Patxi Aierbe, diruzaina Faustino Garmendia, ehiz- ordezkaria Patxi Irastorza, arrantzakoa F. Loiarte eta bokalak F. Sarasola, F. Sanz eta J.R. Deba izango dira aurrerantzean.

□Udalbatzak Milagrosa Ikastetxearentzat eta Jakintza Ikastolarentzat dirulaguntzak onartu berri ditu, hau da, gaurkotu egin dira. Gaia eztabaidatsua izan da. EAJ eta EAK bien aldeko botua eman zuen eta HB, berri, bigarrenaren ere batu zitzaion. Jakintzarekin zuen komenioan Billa Eujeniako haurreskolarentzat gehiengoko 2.100.000 pztako laguntza aurrikusten zen eta San Inazio-rako 2 milioi. Horrez gain, 850.000 emango zaizkio eta Udalak bere gain hartuko ditu garbiketarak eta kontserjea-

ren nomina. Milagrosari dagokionez, bere gastuetarako laguntzak izango ditu, ia 3 milioi arte.

□Ordiziako jatorrizko bandera Bilboko Museo Historikoan dago; Tolosako Alderdi Karlistaren jabegokoa da eta berriazera doaz. Antxon Krehuet zena, "D.V."ren kolaboratzailea (eta GOIERRITARAREna ere), arduratu zen artxiboetatik, hautsak kendu eta dokumentu historikoak argitara ematera, bere afizio kutsagarriarekin. Bere azkeneko lanen artean aurkitzen da bertako jatorrizko bandera ikusgarriaren aurkikuntza. Carlos VIIak gure herriko elizan Foruak gordeko zituela zin egin zuenetik, ibilbide luzea ezagutu du benetako banderak. Behin berreskuratu ondoren, leku egoki batean ipini behar da, publikoak goza dezan.

□Orain dela gutxi sortu den "Oiangu" Pilota Elkartearen helburua gure kirola eta ohiturak gorde eta mantentzea litza-teke. Bere iharduera larrazko paletan eta pala motzean oinarrituko da nagusiki. Elkartearen batzarra honakook osatzen dute: Jesus Mari Albisu (lehendakari), Peio Gaztañaga (lehendakarior-



Logotipoaren egilea: Ramon Aldasoro legorretarra.

de), Raul Lakalle (idazkari) eta Jon Aranburu (diruzaina). Hauetaz gain, IVEFen lizentziaturiko 2 preparadore fisikoen laguntza dute: Josu Beriain eta Jon Aranburu. Oiangu P.E.-k gazteei zuzendutako pala eskola bat eratu du. Kirol hau praktikatzeko interesa duten guztiak asteazkenetan Beti Alai pelotalekura hurbildu 18,30etan eta Andoni Berasategirekin edo Jesus Mari Albisurekin harremanetan jarri daitezke. Bestela, Peio Gaztañagarekin kontaketa dezakete 882879 ifonora deituz, 19,30etatik 21,30ak arte.

Aitor Calvillo

ITSASONDO

Bertso saio bikaina 26ean

Gonbite bat egin nahian azaldu gara hamabostaldi honetan GOIERRITAR-RAN dugun lehiatila honetara. Aspal-diko urte hauetako ohiturari jarraituz Itsasondoko Udaletxeko Kultura taldeak bertso-saioa prestatu du hil honen azken larunbaterako. Saiatu gara herriko frontoian egongo den eszenariora klase guztitako bertsolariak ekartzen, ahal den jende gehienari gustoa egiteko. Ea zer iruditzen zaizkizun kantuan arituko direnak: Andoni Egaña, Xabier Euskitze, Sebastian Lizaso, Jokin Sorozabal, Unai Iturriaga eta Xabier Zeberio. Gai-jartzen Mikel Mendizabal arituko da, gaueko 10,30etatik aurrera.

Esan beharrik ez dago goierritar bertsozaleentzat izango dela tokia. Guk proposatutako karteleran finalista asko

egonagatik, sarrera ez da izango Anoetako belodromoan bezain garestia. Guk daukagun frontoia ("Errota") Anoetakoarekin konparatzeko modukoa ez dela badakigun arren, saiaturako gara okasiorako dotoretzen eta berotzen (berogailuak ez dira faltako eta gradetan harriaren hotza epeltzeko dauzkagun bigungarriak ere ez). Larunbaterate!

Berrikuntzak liburutegian

Herriko liburutegia berritzeko obrak oraintxe hastear daude. Liburu berriak sartzeko tokirik eza, horixe da berrikuntza egiteko arrazoia. Asko dira hilero liburutegira iristen diren liburu berriak, baina txikitatik udaletxe azpian ezagutu dugun liburutegiak ia ez du gehiagorentzako kapidarik. Horregatik Udaletxeak gaurko liburutegia itxuraldatzea erabaki du obra txiki baten bidez: burdinezko

armario haundi batzu izango dira egungo egurrezko apalen orde. Liburutegi zati bat erabat aldatua geratuko da.

Beste aldaketa nagusi bat liburutegiarren informatizazioa izango da. Liburuak topatzeko erreztasun haundiagoak izango ditugu, informatika bidez klasifikatuak egongo direlako liburu guztiak, bakoitzak bere fitxa duela. Honetarako Udaletxeak langile bat kontratatuko du hilabete batzutarako. Guzti honek esan nahi du gure "liburutegi xaharra" denboraldi batean itxita egongo dela. Edonola ere, herritarrei emango zaie abisu noiztik noiz egongo den itxia eta esan beharrik ez dago, edonork liburutegia baten premia baldin badu Udaletxera joan eta eskatzea besterik ez daukala.

Arantxa Arza

Egunero Zuhaitz Eguna

Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere martxoaren 12an ospatu zen Zuhaitz Eguna, herri askotan. Gurean ekintza aski ximple eta sinbolikoa izan genuen. Lardizabal eskola atzean txukundu duten sailean landatu ziren arbola batzuk. Ondoren hamaiketako eman zien Udalak lanean parte hartu zuten guztiei. Hamaiketako garaian, hitzaldia deitzea atrebitzen ez bagara ere, alkateak informazio luze eta zabala eman zuen Zaldibia basogintzan burutzen ari den lanaren gainean. Adierazi zuenez, urte osoan zehar izan da Zuhaitz Eguna Zaldibiarentzat, Gaztelupean eta Artxabalen landatu diren nola bertako eta hala kanpoko arbola ugari kontutan hartzen baldin baditugu. Olaldeko basorako proiektua ere esku artean omen du Udalak eta luze gabe gauzatuko omen da.

arrantzan in-punitate osoa-
rekin, inork
kasurik egin
gabe. Bere iri-
tziz, hori litza-
teke zigortu
beharrekoa,
alegia, urte
osoan edozein
lekutan eta
edozein ordu-
tan arrantzan
ibiltzea. Berak
makina bati
kargu hartu

omen die, baita behar zen tokira joan ere, baina apenas inork kasu haundirik egin dion orain arte. Ea konponbide egokirik izaten den.



Aritz Mendizabal txapeldun

Aldaburuko Aritz Mendizabalek beste txapelketa bat gehiago badu etxerako. Oraingoan Itziarren atera da txapeldun, afizionatu kategorian, buruz buruko moldean, Debako Mendizabali 22 eta 19 irabazi ondoren. Oso partidu gogorra jokatu behar izan zuen Itziarko frontoi txiki hartan, baina azkenean, horraatik, lortu zuen irabazle izatea. Gipuzkoa mailan zegoen antolatua Itziarko lehiaketa eta 8 lagunek hartu dute parte. Zorionak!

Mus txapelketa

Zubiburu Elkartek antolatuturik, baptako mus txapelketa izango da datorren larunbatean (26an). 16,30etan emango zaio hasiera eta 16,15etarako izenak emanda egon beharko dute parte hartu nahi dutenek. Bikote bakoitzak 3.000 pzta. ordainduko ditu parte hartze aldera. Baina zer-nolako sariak dauden ikusirik, jende asko animatuko dela uste dugu: 1.a, 120.000 pzta., txapelak eta trofeoak; 2.a, 60.000 pzta.; 3.a, 25.000 pzta.; 4.a, 12.000 pzta.; 5.a, 6.000 pzta., e.a. 4 erregetan eta 6 hamarrekotako 3 usteletara jokatuko dira partidak.

 **Rufino Iraola**

Arrantzako beda dela eta

Amundarain errekan asteartetan arrantzan egitea debekatu egin dutela eta, Jexux Mari Mendizabalek idatzi bat zuzendu digu sail honetan argitara dezagun. Amuarrainak ugaltzeko ezinbestekoa dela neurri hori hartzea esan omen dute, baina Jexux Mariren ustez hori ez baino beste neurri batzuk hartu beharko lirakeke. Adibidez, bedatuan urte osoan ibiltzen omen da jendea

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak


Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885854
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA



ondoeta

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxe: 880872. 20249

HALTZAIRUZKO ATEAK:

AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

ITSASONDO

Parroki atariko zutabeak gaitzak jota

□Xilofago bezala ezagutzen den gaitzak jota daude Parroki atariko zutabeak. 1665ean eraikiak dira inguruko basoetatik bildutako egurrarekin. Badirudi hezetasuna izan dela zutabe hauek duten gaitz honen sortzailea. Seroretzeko konponketak burutzen ari zirela, bi zutaberen artean zegoen harritzko banku bat kentzerakoan konturatu ziren kalteaz. hasiera batetan, burdinezko zutabe batzuk jarri zituzten atari honen sostengua ziurtatzeko. E.J.-ko Ondare Sailera jo zen ondoren eta haiek tratamendu berezi bat jarri diote gaitzari aurre egiteko.

□Helduentzat tenis ikastaroa antolatu du Udaleko Kirol Erakundeak. Lehenengo oinarriez gain, hobekuntza maila ere izango du ikastaro honek.

□Polikiroldegitik kanpo, tenisa praktikatu ahal izateko pista berria eraiki zenetik, herrikoez gain kanpokoak ere hemen izan ditugu, kirol honetan zaletu berri asko sortu direlarik. Hortik sortu da Antzizargo tenis eskola. 3 mailatan banatzen da tenisaren ikaskuntza: "minitenis" a bezala ezagutzen den 1. mailan 7 urte inguruko haurrak izaten dira ikasle; hor behin oinarri bat hartu ondoren, 2. mailan, oinarritzko ezagutza guztiak lantzen dira, ondoren entrenamendu taldera pasatu eta tenis taldean sartzeko aukera eskaintzen zaie-larik.

□Loinatz Jaietarako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu berri du aurten ere Beasaingo Udaleko Kultur Batzordeak. Iaz, Alberto Buenok

eraman zuen saria. Aurten bertan parte hartzeko asmoa duzuenok, jakin ezazue edonork edukiko duela horretarako aukera eta edozein eratako lanak onartuko direla. Lanen neurriak, zabalera 45 zm-koa eta luzera berriz 65 zm-koak izan beharko dute. Gaia Jaiak izango denez, aurkeztuko diren lanek "Beasain, 1994-ko Loinatz Jaiak" testua eraman beharko dute idatzita. Epaimahaiak 45.000 pezetako sari bakarra emango du, baina gutxienezko kalitate ezean, saria eman gabe ere geldidai-teke. Xehetasun gehiago Kultur bulegoan. Ea azal itxuroso bat egitera ausartzen zareten!

 **Nekane Altuna**

EZKIO-ITSASO

"Eup!" Herri aldizkaria

Gure herriko aldizkariaren 6. alea etorri zitzaigun urte berriarekin batera. Azala koloretan duela, makina bat kontu badakar. Gutunetan Joxe Antonio Aranzadi, "Ezkio-txiki", bertako bertsolariari "Ibai-ertz"ek gorazarrea egiten dio; Udalak antolatutako ikastaroen eta zerbitzuen berri ematen da; ospatutako 3. adinekoen eguna; herriko pertsonai historikoen atalean, Antton Idiakezek "Ezkioko Itsu" XIX mendeko bertsolari ospetsuaz dihardu; Miren Labarzaren jakingarri, errezeta eta izkirimiriak; "Aleko gaia"n, herriko aguazilari egin zaio elkarriketa; 3. aldiz, Pello Joxe Aranburuk, Alegian erretore izana eta egun Maizpide Euskaltegian irakasle denak, Kizkitzaz bere lekukotasuna damaigu, hainbat datuz horniturik; "Mendiz mendi" sailean, bertan bizi den Koke Lasak, Himalaian Cho-Oyu mendi gailurrerako bidean bere taldearekin bizi izandako esperientzia kontatzen du. Irailaren 30ean igo zituzten mendi haren 8.201 metroak, eta orain ari dira han-hemen


ikusentzunezkoen saioak ematen. Beste zenbait sailek osatzen dute hiruhilabetekari hau. Laister izango da udaberrikoa!

Udal aterpearen prezioak

Aurtengoak, momentuz, hauek izango dira. Gaua pasatzea, helduak: 600 pzta.; 18 urte bitarteko gazteak: 500 pzta. Alojamentua sukalde esku-bideaz: helduak: 800 pzta.; gazteak 700 pzta. Gosaria: helduak: 250 pzta.; gazteak 175 pzta. Bazkaria: helduak: 850 pzta.; gazteak: 500 pzta. Afaria: helduak: 700 pzta.; gazteak: 400 pzta. Egun osoagatiko prezioa: aurreko zatien batura. Egun erdiagatiko prezioa: aprobeztatzen dituzten zatien batzea. Janariarena aldatu egin daiteke, ostutukoak ez baitaki nola aterako zaion jarritako prezioekin. 10 pertsona edo gehiago etortzeagatik %20a deskontatuko da.

Biztanleen errolda

93-I-1ko eskubidezko biztanlegoa



520a zen; 19 alta eta 19 baja izan ziren iazkoan eta 94-I-1ean 520 biztanletan gelditu da Ezkio-Itsaso.

 **Pilare Mujika**

Akabo liga eskubaloian

Urri aldera hasi zen liga horrek, lehengo astean ezagutu zuen bere amaiera. Lurraldeko 1. kategorian horretan aritu izan dira gure mutilak jo eta ke. Oran dela bi urte nazio mailako 2. kategorian aritu zirela aipatu behar. Zoritxarrez maila bat jeitsi beharra tokatu zitzaion eta talde berri eta gazteago batekin aurre egin behar izan dio aurtengoan, Ambrosio Apaolaza entrenadoreak. 12 taldek osatzen zuten Gipuzkoako liga hau, lehenengo biak igoera fasea jotzeko aukera izan dute; bi hauek Bergara eta Arrasate izan dira. Azken postuko bi talde automatikoki Lurraldeko 2. kategorira jeitsiko dira; hemen, Urola, eta Loyola talde donostiarra aurkitzen dira. Talde ormaiztiarra

erra erdialdean kokatuta geratu zaigu, 5. postuan hain zuzen.

Arauek agintzen duten bezala, iganderoko 12 laguneko taldea biltzeko zailtasunak azaldu zizkigun Ambrosiok. Denboraldi osoan zehar konbokatoria bat aukeratzeko, 3 edo 4 bider izan omen du aukera. Ikasketak, lana, ehiza, juerga bat edo beste,... izan dira entrenatzailearen burukominerako. Hala ere 5. postu hori ondo merezitako postua dela aitortu behar da. Liga akabo eta orain Gipuzkoako kopa jokatu dute, Lancia Ormaiztegik beste 7 talde izango ditu arerio. Hoi en artean, 2. nazio mailako Hernani eta Usurbil izango ditu etsai gogorrenak.



Goleatzaileen artean onena

Bereak izan diren 153 golekin, taldeari hainbat laguntasun emateaz aparte, Lurralde mailako liga horretan, Aitor Oñatibia pitxitxi bezala suertatu zaigu. Bere presentzia taldean ezinbestekoa dela argi utzi du. Zorionak motel, eta sartu beste horrenbeste kopan!

 Ion Aldanondo

GABIRIA

Kultur astea laister

Oraindik ere aste pare bat falta diren arren apirileko aste horretarako, jarraian antolatu ditugun ekintzen berri eman nahi dizuegu, eta honetaz gainera, ekintzaren bat gogoko izanez gero, etor zaitezten gonbidapena luzatu.

Apirilak 11, astelehena: Goierri-Cho Oyu, Kultur-etxean, 20,30etan; **12:** Gema Arrugaetaren diapositibak (Ar-

tzaiak), leku eta ordu berean; **14:** Jon Sarasua bertsolariaren hitzaldia, Liburutegian, 20,30etan. **15:** Alberto Iturbe sendagilearen hitzaldia elikaduraz, Liburutegian 16,00etan; Gema Arrugaetaren diapositibak (Peru), Kultur-etxean 20,30etan. **16:** Hika antzerki-taldearen haur-emanaldia herriko plazan, 17,00etan; XXIII Bertsolari

Gazteen Txapelketa Osinalde Elkartean 21,00etan. **17, igandea:** Ormaiztegiko Musika-Eskolako umeeen kontzertua 12,00etan, meza nagusiaren ondoren; Taupada antzerki taldearen emanaldia Parrokiako antzokian, 17,00etan.

 Gabino Murua



OTEA

Mertzeria eta
Jostungaiak

Santa Maria, 1
BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

LOINAZ

Tintoreria

Manta, edredoi, larruzko arropa, alfonbra, e.a.en garbiketa

Nagusia, 30 ☎ 88 20 16
BEASAIN

Iñigo Goikoetxea intsumisioa, epaiaren zai

Iñigo Goikoetxea Mujika izan da epaitu duten lehenengo intsumisio ataundarra. Martxoaren 9an Donostiako Auzitegian izandako epaiketan, 18 hilabeteko kartzela zigorra eskatu zuen fiskalak Iñigorentzat. Epaiketan zehar, kartzelara eraman zitekeen delitu bat egiten ari zenaren jakitun zela esan zuen.

Soldaduskaren aurkako jarrera berretsi egin zuen epaiaren aurrean eta juzkatzen zena, bera bakarrik ez, baizik eta lege hauen kontrako jarrera duten bere inguruko lagun, bizilagun, senide, udala, eta azken batean, babesa eskeini zioten guztiak zirela esan zuen Iñigok, eta ez zitzaiola zilegi iruditzen Estadua bere jokabide horren kontra joatea.

Lekuko bezala, Aitor Auzmendi zinegotzia izan zuen babesa ematen. Honek, zegoeneko bere burua intsumisotzat joa zuen Ataungo Udalak, bezperan ildo beretik onartutako akta bat aurkeztu zuen. Legea ezagutzen zuela, baina zera adierazi zuen Aitorrek, lege hoiek pertsonak zerbitzeko egon behar dutela, eta ez pertsonak legeak zerbitzeko. Soldaduska-

ren aurka jardun ondoren, intsumisioak zigortzen dituzten legeak ondo aplikatzekotan Ataungo zinegotzi guztiak kartzeleratu beharko lituzketela ere esan zuen, beraiek zirela eta gazteak jarrera hori hartzera bultzatzen dituztenak. Azkenik, Iñigo eta gai-nontzekoen jokabidearekin beste balore pakezalegoak eta antimilitaristak izango dituen gizarte bat sortzea posible izango dela, eta ejertzitza desagertzearen aldekoa zela azaldu zuen, bitartean norberak ejertzitzaarekiko jarrera askatasunez erabakitzeak aukera aldarrikatu zuelarik, Aitor Auzmendi.

Telefono zenbaki berriak

Telefonicak zentral berri bat egin du Ataunen. Hemendik aurrera bertatik hornituko dira herri guztiko telefonoak, eta bapatean nabaritutako dugun aldaketa zenbaki berriak erabili beharra izango da. Aurreneko zenbakiak 1-8 izango ditugu eta hiru hilabeten zehar zenbaki



zaharra sakatzen duenak, berria emango dioen erantzuna jasoko du.

Nitxoetan hilobiratuko da

Aurrerantzean nitxoetan hilobiratuko dira hildakoak. Hiru kanposantuetako nitxoak bukatuta daude, eta hauen erabilera 60.000 pezeta ordaindu beharko du sendiak. San Martinen 48 nitxo egin dira, San Gregorion 24 (argazkian ageri direnak) eta Aian 12.

 Joxe Begiristain

LEGORRETA

Kultur Etxearen inaugurazioa

Martxoaren 27an, 12,00etan izango da Kultur Etxearen inaugurazio ofiziala. Ordutegi eta egunak Agenda sailean aurkituko dituzu zehatz-mehatz azalduz.

Edukinontzi bat gehiago herrian

Sasieta Mankomunitateak bilketa selektiboari ekin nahi dio, zaborrekin batera nahastuta bota ohi ditugun zenbait material bereiztuta bildu eta berziklatzeko sistema bat jarri martxan. Hori dela eta, berziklatzeko kontzientzi-hartze

kanpainaren barnean, herritarren esku jartzen dituen zerbitzuen berri eman eta hauek beraien etxetatik ingurugiroari nola lagundu diezaioketen erakusteko, zenbait gomendio eskaini nahi izan du emana duen bilera batean. Beirazkoentzat jarria duen bezalaxe, oraingoan paper eta kartoientzako edukinontzi berri bat jartzeko asmoa du Sasietak, uda heldu aurretik. Hau kolore urdinekoa izango litzateke. Zabor bilketa zerbitzua ona izan dadin, ezinbestekoa da denon laguntza.

Elkartasunezko jarrera, ingurugiroarekiko kalteak agortzen joan daitezen.

Pala txapelketa

Bilkoin elkarrekin pala txapelketa berri bat antolatu du 16 urtetik gorakoentzat. Herrian palan jokatzeko afizio handirik ez bada ere, 25 bikotek eman dute izena. Partiduak larunbat arratsaldean eta igande goizez jokatu dira, martxoaren 26an hasita.

 Xabier Glez. Ezama

Egunkaria HARPIDETZA TXARTELA 1994

Izena.....Tfnoa.....
 Abizenak.....
 Helbidea.....Herria.....
 *Ordaintzailea.....
 *(Bete soilik ordaintzailea eta harpideduna desberdinak direnean)
 I.F.K. edo N.A.N.....Banketxea.....
 Suk.....Kontu zbk.....
 Kontrako agindurik ez dagoen bitartean, harpidetza automatikoki berrituko zaizu
 EUSKALDUNON EGUNKARIA, Getaria Kalea, 21 Donostia ☎ 431910 (Marisa)

Modulo hau
3.000 pzta.
 kostako zaizu
 10 aldiz eginez gero
2.500 pzta.

AURTEN GARAIPEN BERRIA LORTU DU EUSKADIKO SELEKZIOAREKIN

Santos Regil: "Ez dugu sinisten gehiagorako gauza garenik"

Elkarriketa egunean (martxoak 19) Ordiziako rugbizaleak firma-biltzen ari ziren herrian, zelai berri baten premia larria baitute. Aste horretan bertan Espainiako rugby-selekzioan parte hartzeko deitu diote Regili. Beste bi euskaldunekin joango da Eskozia aldera.


19 urte dauzka eta 23 urte azpikoen selekzioarekin jokatzen deitu berri dute. Kadete eta jubeniletan askotan izan da selekzionatua, baina senior mailan hau da lehen aldia. Eskoziarako dira. Hilak 28an Madrilen entrenamendu txiki bat egin eta 29an ospa Londonera. Eta handik Eskoziara. Bi kondaduko taldeen kontra jokatuko dute, eta Eskoziako selekzioaren kontra hurrena. Lehen ere izanda dago han, Espainiako selekzioarekin, jubeniletan. "Irabazi egin genian gainera, 12-13. Sekula gertatu gabekoa. Izugarria izan huen".

GALDERA.- "Axiok" esandakoak ere izugarriak izan dituk.

ERANTZUNA.- Arrazoi puxkat baidik Axiok. Nik uste diat hasi behar diagula gazteok gehiago saiatzen, eta aurtengo denboraldiaren azkenaldira erakutsitako bideari eusten bazioagu, bide onetik goazela.

G.- "Beteranoek" rugbia utzi izanak ere izango zian eraginik gazteen motibazio ezan.

E.- Derrepentean jende gehitxok utzi zian taldea, eta hori partiduetan naberitu izan duk. Bestalde, garai batean jubeniletan nahiz kadeteetan bahuen oso jende ona, eta gora iristean "zaharrek" zizkiaten postuak hartuta, eta gazte- jendeak burua makurtu egin zian, desanimatu egin hituan. Gaur egun, 2. taldearekin ez zegok horrela-



korik. Garrantzizkoa duk oso 2. taldea, baita 1. go taldean daudenentzat ere, ze horko batenbat lesionatuz gero, 2. taldean jokatuta errazagoa dik berriz ere bere onera itzultzea.

G.- Trevijano erabat hondatuta, firma biltzen ari zarete.

E.- Oso zaila duk 12-13 urteko 20 lagun biltzea rugbian jokatzen, eta gero zelai horretara bildu beharra. Orain 15 egun partidu bat bertan behera gelditu huan. Hor ez zegok jokatzerik, ez dutzatzerik. Guk ez diagu Ordiziarentzat Pariseko "Printzeen Parkea" nahi, baina gutxien-gutxiengo, ordea, bai. Eta horixe jakin nahi diagu firma-bilketen bidez, ea herriaren elkertasuna badiagun ala ez. Udaletxeari eskaera egin zioagu, Altamiran jokatu nahi diagula, ahal denean behintzat. Diru asko aitatu diate zelai berrirako. Nik uste gutxiago gastatuta ere, eta imajinazio pixkatekin, gauzak egin litezkeela.

G.- Aurtun 6. postua lortu duzue.

E.- Txarretik onera egin diagu. Kanpoan oso gaizki aritu gaituk. Ez diagu sinistu nahi gehiagorako gauza garenik. Oso erraz makurtzen diagu burua.

G.- Aurre-denboraldia egitera Iparraldera joango al zarete?

E.- Etzekiat. Talde nagusiarentzat probetxugarriagoa duk hori Gipuzkoako Txapelketa jokatzea baino. Iparraldetik zer ikasi asko diagu: han txikitatik irakasten zietek jokalariei zelaian zer egin behar duten. Eta gero hango afizioa, telebista, herri askotan zeudek zelaia, eta nolakoak gainera! Eskozian, hango zelaia zapaldu eta, ni horrekin konforme!

Hara Espainiako selekzioarekin doa, Euskadikoan ere hartu du parte. "Komunitate Autonomoka izaten duk txapelketa eta aurtun Euskadirentzat izan duk txapela... Aurtun? Behin jokatut diat". 10 urte daramatza Rugbian eta lorpen gehiago baditu: Ordiziarekin Espainiako azpi-txapelduna, Euskadiko selekzioarekin Espainiako txapelduna, jubeniletan; jubeniletan baita ere, Eskoziari irabaztea, eta Euskadi eta Espainiako selekzioetara askotan deitu izan dute. Izan ere, ez da harritzekoa, Santos den mutil puskarekin!

G.- Eta azkeneko deialditik zer espero duk?


E.- Han ikasitakoa Ordiziako taldearentzat baliagarri izatea. Aurtun ez dizkiagu oso emaitza onak lortu, baina taldea beste urte batzuetan baino osatuago zegok.

Bukatzeko, gazteak animatzeko, etortzeko rugbira jolastera, eskatzen du Santosek.

 Jon Imanol Iturrioz

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa